

“SOINU-TXIKIAREN ERREPUBLIKA”

Koldo Izagirre

Esaten dute Eibarko perratzailea deseaten egoten zela Intxuzabalekoak noiz azalduko; haiek soinuarekin etortzen omen ziren beti eta, jakina, mailuaren musika baino hots atseginagoa egingo zitzaion esku-soinuarena. Edozelan ere, Jazinto Rivas-ek, Intxuzabaleko Maria Gabilondok semetzako hartua zuen ume txikitxu beltzarenak, oso gazterik erakutsi zituen soinurako zeuzkan dohain apartak. Musikari emana bizi izan zen hil arte, eta esan liteke musikak berak hautatu zuela, bizimodu normal batetik atera eta alproja moduan ibilarazteraino: Jazinto Rivasi buruz kontatzen diren ipuinetako batek dio etxeko idi parerik onena saldu zuela esku-soinu bat erosteko.

Horregatik bota omen zuten etxetik.

Edo etxea jokoan galdu ez zezan, zalea baitzen. Ez zen zurruteroa, bai ordea jokalaria. Eta fede handia zeukan kartetan, kartomantziak egiten egoten zen gauean, bakarrik, goizaldea arte.

Gaur egun Bergaran ezkondata gozogile den Migel Sagastumek, Mago de Urki izenaz soinu kromatikoaren maisu handia izanak ongi gogoan dauka nola etortzen ziren Eugenio Ubera, Bergaretxekoa, eta Jazinto Rivas, Intxuzabalekoa, bere aitarekin ikastera. Hala ikasten zen orduan, mende hasiera hartan, zer edo zer zekienak ezer ez zekienari irakatsita: ez zegoen akademiarik eta eskolarik. Eta gutxiak uste zuten soinu-txikiak halako bide ederra egingo zuenik. Baina Jazinto Rivasek bai, erraztasuna zeukan jotzeko, belarri ona, eta gogo handia. Eibarko bandaren klarinetistarekin hasi zen pieza berriak ikasten. Gero, udan Donostiako Igeldon jotzen zuen bandako zuzendariarekin. Hainbeste piezako.

Jazinto Rivasek, Eibarren Intxuzabal eta Euskal Herrian Elgeta izango zenak, asko zor dio Eibarri. Esan liteke Eibarri esker bihurtu zela edonorakoa, larrekoa zen musika tresna. Gehiegitxo esatea ez ote den, pentsatuko duzue. Ez dut uste.

Eibar errepublika independente moduko bat izan zen urte luzetan Bizkaia eta Gipuzkoa nazionalista eta zintzokoteen erdian, abadeen diktaduratik libre samar, mundu ikuskera zabal eta aurrerazalean, ohituren askatasun sanoan. Mateo de Uriarte abadeak 1935ean eginiko txosten batek dioenez, usteltze moral handi bat ari zen gertatzen Eibarren.

*« Lanik egiten ez duanak
batere ez jatia »
Rusian ere langileak
jarri dute legia*

*Gora Euskadi eta
gora mundu guztian
bere izardiakin
bizi dan jentia*

Trikitilarien eremu tradizionalerako leku askotan dantza lotua debekatua zeukaten bitartean, Eibarrek munduko aire berri guztiak inportatzen zituen baltseorako. Salon-Teatro eta Salon Cruceta dantzalekuak zeuzkan, eta 1907 urtean, adibidez, 50 dantzaldi eman zituzten bien

artean. Kopuru horri, jakina, aire librekoena gaineratu behar genioke...

Inguru horrek eragin handia izango zuen, zer duda egin, Jazinto gaztearen bilakabidean. Petratxarri esaten zitzaion etxean, Zezenbide kalean zegoen “casa de lenocinio” arestian aipatu Mateo de Uriarteren hitzetan, hartu zuten pianista Jazinto. Bai, “putetxeko pianista”.

Pianoa, noski, esku-soinua zen: erromeriarako tresna dantza loturako moldatu zuen Jazintok, erreperitorio egokia ikasi zuelako batetik, eta inork ez bezala jotzen zekielako bestetik, tonu desberdin askotan. Eibarrera etorri behar izan zuen Sakabik, trikitilaririk onenarekin ikasteko. Egin dezagun kontu 1935eko kontua dela hori... hogeita bederatzi urte besterik ez zituela, Intxuzabal maisutzat hartua zuten Gipuzkoan.

Gerra heldu zen, eta boluntario ibili zen. Preso egon zen Santoñan, eta baita Cadizen ere, langile bataloietan, beste eibartar batzuekin batera, Txapasta pilotaria tarteko. Pepe Bolunburuk ederki adierazi zuen orduan pasa zuten gosea:

*Izugarrizko bizimodua
jarri digute oraintxe:
ondo neurtuta daukagu ura
ogirikan ez sobrante,
eskabetxeko sardina latak,
txorizo ta txokolate...
Barrido ere kalabazia
haziko jaku bastante*

Eta liberatu zutenean, Eibarrera jo zuen ostera Jazinto Rivasek. Arruabarrena etxegileak hartu zuen, hark eman zion lana. Soinuzale handia zen, seme bat panderista zuen, eta halako batean soinu berri bat erosi zion Jazintori.

Eta esaten dute hurrengo egunean langile bat gutxiago azaldu zitzaiola lanera Arruabarrenari. Nik uste dut espero zuela halakorik. Eta jakinaren gainean erosi ziola soinua, bazekielako euskaldunok hobe genuela musikari handi bat igeltsero txar bat baino. Huraxe behar zuen Jazintok, huraxe zen haren beharra.

Koldo Izagirre